

*Espacios cotidianos para el arte*



ARTE  
EDERREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE BELLAS  
ARTES

*Arterako eguneroko espazioak*

**ARTE EDERRETAKO FAKULTATEKO IKASLEENTZAKO DEIALDIA,  
ARTELANAK ARTOTEKAKO BILDUMAN SARTZEKO**

## Zer da Artoteka?

Artea eguneroko bizitzara eta publiko ezberdinetara hurbiltzeko artelanen mailegua eta artistekin bitartekaritza-jarduerak eskaintzen dituen plataforma da **Artoteka**. Artotekaren bidez, interesa duen edonork **maileguan** har dezake artelana bat, **bitartekaritza** artistikoko jarduerak egin, eta, hala, gure inguruko artisten lanari buruz ikasi, eta lanaz esperimintatu eta gozatu.

## Nola funtzionatzen du?

1

**Tokiko artisten obren bilduma bat da, artistek maileguan utzitako artelanetan oinarrituta, eta proiekturako berariaz diseinaturia.** Bilduma honek tokiko sorkuntza garaikidearen aniztasuna eta aberastasuna erakusten du.

2

**Erabiltzaileek obra horietako bat edo batzuk hautatzen dituzte beren etxeetan, lantokietan edo estudioetan maileguan hartzeko;** azken horrek gutxienez hiru hilabete iraungo du. Artelanak Artotekako taldeak gainbegiratuta garraiatzen eta muntatzen dira.

3

**Mailegu hori aktibatzeke eta artisten eta komunitateen arteko loturak sortzeko, bitartekaritza-jarduerak diseinatzen dira espazioaren eta erabiltzailearen eta artistaren behar eta interesen arabera.** Horrela, artisten eta komunitateen arteko topaguneak sortzen dira, idazlanen eta haien esanahien inguruan taldean gogoeta egiteko.

## Deialdia

Artotekako bilduma proiektuaren bigarren aktibazioan zabaltzen ari dela eta, deialdi hau argitaratzen da, **UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultatearen partaidetzarekin**, Fakultateko Gradu, Master eta Graduondo ezberdinetan matrikulatutako ikasleei zuzendua, 2022an artelanak gehitzeko.

## Baldintza orokorrak

Artotekak urteko kontratua egingo du hautatutako artistarekin, eta hark 3 lan aurkeztu beharko ditu bildumarako. Artistak 500 euro jasoko ditu ordainsari gisa. Gainera, sor daitezkeen bitartekaritza-jardueretan parte hartzeko konpromisoa hartzen du artistak (jarduera motaren arabera ordainsaria jasoko du).

Artotekako taldeak hautatutako artistaren jarraipena baloratuko du, eta urte naturalaren amaieran kontratua desegin ahal izango du.

Artelanak egileen esku egongo dira, eta haien erantzukizuna izango da piezak egoera onean daudela bermatzea, Artotekak eskatu arte jarduera ezberdinak egiteko.

## Artelanaren salmenta

Artelana maileguan hartzen duten erabiltzaileek obra erosteko aukera dute. Salduz gero, artistak faktura luzatuko dio interesdunari, dagozkion zergak aplikatuta, eta gehienez ere 6.000 euro (BEZa sartu gabe). Artotekak salmentaren %15 jasotzen du, eta artistari dagokion faktura igorriko dio Kasu honetan, saldutako obraren orde bestea pieza bat jartzeko eskatuko zaio artistari.

## Zer eskaintzen dugu?

- Lurraldeko artisten lanak ikusaraztea.
- Artistentzako sarrera-bide osagarriak sortzea.
- Bere lana publiko zabalago eta anitzago bati ezagutaraztea.
- Obra-erosleak bilatzea.
- Artisten lana zabaltzea artearen eta kulturaren eremuarekin nahitaez lotuta ez dauden espazioetan.
- Artotekak arte garaikidea eguneroko espazio eta esperientzietara hurbildu nahi du.
- Lanari esanahi-geruzak gehitzea, obra aktibatuz, askotariko publikoekin.

Gainera, Artoteka obren aseguruua kudeatzeaz arduratzen da, baita haien garraioa koordinatu eta gainbegiratzeaz ere, mailegua eta bitartekaritza-jarduerak irauten duten bitartean.

## Dokumentazioa

- Artotekako bilduman sartu nahi den lanaren portfolioa (gehienez ere 6 irudi, aurkezten den lan bakoitzeko bat), pieza bakoitzaren ezaugarriak, instalatzeko eta garraiatzeko beharrak eta haren balioa (6.000 euro, BEZa sartu gabe) zehaztuz.
- CV
- Matrikularen ziurtagiria
- Motibazio-gutun laburra.

Dokumentazioa PDF dokumentu bakarrean aurkeztuko da, **info@artoteka.org** helbidera bidalita. **Eskaerak aurkezteko epea urtarrilaren 14tik otsailaren 4ra izango da**, biak barne.

Zalantzarik edo galderarik izanez gero, bidali goian adierazitako helbidera.

## Kontuan hartzeko

Agiriak aurkezteko gehieneko epea:  
2022ko otsailaren 4a.

Ebazpena:  
2022ko otsailaren 11an.

Kontratua formalizatzea:  
2022ko otsailaren 28an.

## Datu pertsonalen tratamendua

515/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua betez, Datu Pertsonalen Babesari buruz, jakinarazi nahi dizugu deialdi honetan parte hartzeko eskatutako datuak "ANTespacio Elkarte" izeneko fitxategi batean sartuko direla. Eskubidea duzu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta tratamenduari aurka egiteko, mezu bat bidaliz adierazitako helbidera.

Dokumentazioa bidaltzeak berarekin dakar oinarriak oso-osorik onartzea.